

**NAZIO BATUEN SEGURTASUN
KONTSEILUAREN 1325 EBAZPENAREN
APLIKAZIOA IPAR IRLANDAKO BAKEGINTZA
PROZESUAN**

ZUZENBIDEKO GRADUA

Gradu Amaierako Lana (GrAL) 2020-2021

Matxalen Fondado Erizek egindako lana

Iker Zirion Landaluzek zuzendua

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	3
2.	NAZIO BATUEN SEGURTASUN KONTSEILUAREN 1325 EBAZPENA: EMAKUMEAK ETA BAKEA ETA SEGURTASUNA.....	4
2.1.	Ebazpenaren edukia eta garrantzia.....	4
2.2.	1325 Ebazpenaren garapena.....	6
2.3.	Emakumearen kontrako edonolako bereizkeria deuseztatzeari buruzko hitzarmena (CEDAW) eta bere lotura 1325 Ebazpenarekin.....	10
2.3.1.	CEDAWren aurkezpena eta bere erabilera 1325 Ebazpena indartzeko...	10
2.3.2.	CEDAWren Komitearen 30. Gomendio Orokorren eta EBSren ebazpenen edukia.....	12
2.4.	1325 Ebazpenari kritikak.....	16
3.	1325 EBAZPENAREN APLIKAZIOA IPAR IRLANDAN.....	18
3.1.	Gatazkaren azalpen laburra.....	18
3.2.	Erresuma Batua eta Irlandaren Akzio Plan Nazionalak.	21
3.2.1.	Erresuma Batuaren Akzio Plan Nazionala.....	21
3.2.2.	Irlandar Errepublikaren Akzio Plan Nazionala.....	21
3.2.3.	Ipar Irlanda Akzio Plan Nazionaletan.....	23
3.3.	1325 Ebazpena Ipar Irlandan aplikatzearen garrantzia.....	25
4.	EBAZPENAREN APLIKAZIO EREMUA ZABALTZEA.	28
5.	ONDORIOAK.	31
6.	ERREFERENTZIAK.	32
6.1.	Bibliografia.....	32
6.2.	Testu juridikoak.....	39

1. SARRERA

Bakea eta segurtasuna lortu eta mantentzea dira gizarte orok dituen jomugak, baita Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren oinarritzko eginbeharrak ere. Baina eginkizun horietan nork definitu du segurtasuna? Noren bakea? Argi dago, gizarte demokratiko batean bakeak eta segurtasunak guztionak izan behar dutela, gizon zein emakume, eta hortaz, genero-berdintasuna ezinbesteko baldintza dela inoiz bakea lortuko bada. Ildo horretan, 2000. urtean Segurtasun Kontseiluak aurrerapauso handia egin zuen 1325 Ebazpena onartuta, Ebazpenak lehen aldiz txertatzen baitzuen genero-ikuspegia bakegintza prozesuetan.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenak Ipar Irlandako bake prozesuan izan duen aplikazioa aztertzea da lan honen ildo nagusia, baita Ebazpenaren beraren eta dakartzan ondorioen analisi bat egitea ere. Lan honen helburua Ipar Irlandako bake prozesuaren bidez, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenaren aplikazio eremua zabaltzeko aukera aztertzea izan da, Ipar Irlandan 1325 Ebazpena aplikatu izanak horretarako bidea eman dezake eta.

Metodologiari dagokionez, lan honetarako, alde batetik, lehen mailako iturriak erabili ditut, besteak beste hainbat dokumentu ofizial, bai Nazio Batuen esparruan sortutako dokumentuak eta txostenak, eta baita Erresuma Batuko eta Irlandako Gobernuen dokumentu ofizialak ere; eta bestetik, bigarren mailako iturriak, hala nola hainbat egileren liburuak eta artikuluak. Azken horiek izan dira erabilienak. Behin iturriak bilduta, horien azterketa bat egin dut eta ikerlan hau aurrera eramateko esanguratsuenak hautatu.

Lana egiteko orduan, hasteko, gaia aukeratu genuen bakea genero ikuspegitik lantzeko helburuarekin, eta hortik aurrera gaia zehaztu abagune desberdinak aztertuz. Behin gaia aukeratuta, lanaren aurkibidea egituratu genuen, nahiz eta lana egin ahala aldatuaz joan den. Ondoren, gaiari buruzko informazioa bilatu dut, batik bat Euskal Herriko Unibertsitatearen datu basean, erreferentzia bibliografikoak akademikoak eta ahal zen heinean juridikoak zirela bermatzeko. Azkenik, eta informazio hori aztertu ondoren, jasotako datuen hausnarketa egin dut, lanaren edukia idazteko.

Eskuartean darabilgun gai honek interesa sortu du nigan hasiera batetik, bakearen inguruko gaiek eta hausnarketek – batez ere feministek – betidanik erakarri naute eta.

Bestalde, uste dut gaur egun gatazkatzat hartzen ditugunak baino indarkeria mota gehiago daudela eta horiekin amaitzea ezinbestekoa dela bakea lortuko bada.

Gainera, iruditzen zait funtsezkoa dela Ebazpenaren beraren eta bere aplikazioaren inguruko hausnarketak egitea, bereziki ikuspuntu juridiko batetik egiten badira. Izan ere, 1325 Ebazpenaren inguruko aldarriei euskarri juridiko bat eman diezaiekete gogoeta eta analisi horiek.

Lanaren egiturari dagokionez, aurkibidea eta sarreraren ondotik, marko teoriko batekin hasten da lana bigarren atalean, non lan hau ulertzeko beharrezkoa den 1325 Ebazpenaren eta Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna agendaren inguruko informazioa biltzen den. Ebazpena bera eta Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna agendaren inguruko informazioa biltzeaz gain, Emakumearen kontrako edonolako bereizkeria deuseztatzeari buruzko hitzarmenaren (CEDAW) informazioa ere txertatu da, honek lotura zuzena baitu Ebazpenarekin. Azkenik, Ebazpenak jaso dituen kritikak bildu dira, horrela Ebazpenaren, eta orokorrean Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna agendaren, ikuspegi globalago bat izan dezagun. Hirugarren atalak 1325 Ebazpenak Ipar Irlandan izan duen aplikazioa du aztergai; horretarako, lehenik eta behin, gatazkaren azalpen labur bat egiten da aztergaia testuinguruan jartzeko eta ondoren, Erresuma Batuko eta Irlandar Errepublikako Akzio Plan Nazionalak aztertuz, Ebazpenak Ipar Irlandan izan duen aplikazioaren eta aplikazio horren garrantziaren inguruko analisi bat egiten da. Eta, ondorioen aurretik laugarren atal nagusi bat ere badu lan honek, Ipar Irlandako aplikazioa eta marko teorikoan aipatutako kritikak bide hartuta, Ebazpenaren aplikagarritasuna zabaltzea aztertzen duena.

2. NAZIO BATUEN SEGURTASUN KONTSEILUAREN 1325 EBAZPENA: EMAKUMEAK ETA BAKEA ETA SEGURTASUNA

2.1. Ebazpenaren garrantzia eta edukia

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte demokratikoen funtsezko zutabea izateaz gain, ezinbesteko baldintza da bakea eraikitzeke eta garapen iraunkorra lortzeko. Urteetako lan eta presioaren ondorioz, mugimendu feminista aurrerapen sozial eta

politikoak lortuz joan zen bene-benetako iraultza baketsu baten bidez. Hala, nazioarteko komunitate antolatuak bere adierazpen, konpromiso eta akordioetan genero-dimentsioa erantsi du eta gizarte zibilaren artean nazioarteko sare, formal eta informala, eratu da sexuen arteko berdintasuna ebaluatu, jarraipena egin eta bultzatzeko (Magallón, 2008).

Halaber, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 2000. urteko urrian onartu zuen 1325 Ebazpenak, emakumeen estatusa zabaldu zuen gatazka-testuinguruetan, eta genero-ikuspegia sartu zuen zaurgarritasun humanitarioko egoeretan. Halaber, “Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna” (EBS) agendari hasiera eman zion. Agendak genero-ikuspegia txertatzen du gatazka armatuen prebentzioan, kudeaketan eta konponbidean, eta emakumeek bake-prozesuetan parte hartzeko duten eskubidea ez ezik, bake iraunkor, operatibo eta eraginkorraren eta emakumeek bake prozesu horretan izandako partehartze aktiboaren arteko erlazioa aldarrikatzen du.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak aho batez onartu zuen 1325 Ebazpenak Nazioarteko Erakunde horren estatukideei emakumeen inklusioa sustatzeko eskatzen die gatazkek prebenitzeko, kudeatzeko eta konpontzeko erabakiak hartzeko orduan. Aldi berean, Ebazpen honen bidez, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak lehen aldiz onartu zuen gatazkek era desberdin batean eragiten dietela gizonei eta emakumei.

Esan daiteke beraz, Ebazpen hori mugarrria dela “Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna”-ren arloan, ordutik aurrera baino ez baitziren aitortu emakumeek gatazka armatuetan dituzten rol bereiziak. Gainera, emakumeen biktimizazio hutsetik ihes egiten du eta gatazkek ebazteko parte-hartzaile aktibo egiten ditu.

Ordura arte, Segurtasun Kontseiluaren ebazpenetan emakumeak azaltzen ziren aldi apurretan, emakumeak biktima gisa aipatzen ziren, edo talde zaugarri gisa ostera (haurrekin, adinekoekin eta aniztasun funtzionaldun pertsonekin batera); inoiz ez agente aktibo gisa.

1325 Ebazpenak bide berri bat irekitzen du, izan ere, ordura artean bakegintzan eta gatazken prebentzioan emakumeen parte hartzea aitortu ez ezik, erabakiak hartzeko emakumeen eskubidea ere aitortzen du gatazken prebentzio, konponbide eta bakegintza prozesuetan. Halaber, bakeari eusteko operazioetan eta bake negoziazioetan parte hartzen duten guztiei "genero ikuspegia kontuan hartzeko" eskatzen die. Genero ikuspegiak, testuinguru honetan, barne hartzen ditu desmobilizazioa, aberriratzea, birkokatzea,

birgaitzea, berreraikitzea eta gatazkaren ondoren berreraikitzea, bai eta tokiko emakumeen bake-ekimenei laguntzeko neurriak ere. Honez gain, Ebazpen honek onartzen du emakumeek neurritz kanpoko biktimizazioa jasaten dutela gerretan, eta gatazka armatuetako alde guztiei eskatzen die neurri bereziak har ditzatela emakumeen eskubideak errespetatzeko, emakumeak genero-indarkeriatik babesteko eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-delituen zigorgabetasuna amaitzeko. Gainera, bakeari eusteko langileei eta bake operazioetan parte hartzen dutenei genero arloko prestakuntza emateko eskatzen du, eta, era berean, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) sistema osoan emakumeen ordezkartza hobea. (Cohn, 2004).

1325 Ebazpenak Segurtasun Kontseiluari, Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari, estatu kideei eta gainerako eragileei batez ere elkarri lotutako lau arlootan jarduteko dei egiten die (Magallón, 2008):

- Emakumeen parte-hartzea handitzea bake-prozesuetan eta erabakiak hartzerakoan.
- Bakea genero-ikuspegitik mantentzeko entrenamendua.
- Gatazka armatuetan eta gatazka osteko egoeretan emakumeak babestea.
- Nazio Batuen datu-bilketaren eta informazio-sistemen korrante nagusian generoa zeharka sartzea.

2.2. 1325 Ebazpenaren garapena

2000. urtean Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak onartutako ebazpenak garapen handia izan du harrezkero, bai organo nagusi horrek ondoren emandako ebazpenen bitartez bai estatu kideek onar ditzaketan Akzio Plan Nazionalen bitartez.

Alde batetik, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 1325 Ebazpenaren bederatzi Ebazpen osagarri argitaratu ditu 2008tik 2019ra bitartean (1 Taula); honako gai hauek sakontzen dituztenak: emakumearen babesa; hedatu beharreko tropen entrenamendu berezia; emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren zigor penala; eta gatazka-egoera bateko hainbat instantzian emakumeen parte-hartzea areagotzea (RESDAL 2015).

1. Taula: 1325 Ebazpena garatzeko sortutako Ebazpenen laburpena

EBAZPENA**EDUKI NAGUSIA**

1820 (2008)	<p>Indarkeria sexuala gerrako arma gisa gaitzesten du, gerra krimentzat jotzen du (Nazioarteko Zigor Gorteak eratzten duen Erromako Estatutuak babesten duen tipifikazioa), eta gatazka armatuan dauden aldeei zibilak babesteko neurriak berehala hartzeko eskatzen die. Tropak trebatzearen eta diziplina militarreko kodeen aplikazioaren gaia ere barne hartzen du.</p>
1888 (2009)	<p>Idazkari Nagusiari eskatzen dio ordezkari berezi bat izenda dezala Gatazkan dagoen sexu-indarkeriari aurre egiteko eta babes-aholkularien figura txertatzeko; estatu kideei erreformak egiteko eskatzen die, krimen hori zigortzea eta biktimei arreta egokia ematea ziurtatzeko eta ezartzen du aginduetan xedapen zehatzak jaso behar direla emakumeak eta haurrak gatazka armatuetan sexu-indarkeriatik babesteko.</p>
1889 (2009)	<p>Bakea eraikitzen bultzatzen duten alderdi guztietan emakumeek gehiago parte hartzeko deia errepikatzen du, eta Idazkari Nagusiari eskatzen dio estrategia bat egin dezala bere izenean izendatutako emakumeen kopurua handitzeko eta neurriak har ditzala kopuru horrek misio politikoetan, finkapenean eta bakeari eustekoan ere gora egin dezan.</p>
1960 (2010)	<p>Berresten du sexu-indarkeriak, gerra-taktika gisa, gatazka armatuko egoerak nabarmen luzatu eta areagotu ditzakeela eta nazioarteko bakea eta segurtasuna berrezartzeko eragozpena izan daitekeela, eta genero-aholkularien lana aitortzen du.</p>
2106 (2013)	<p>Sexu-indarkeria gizateriaren aurkako krimentzat edo genozidioa den ekintzat har daitekeela ohartarazten du.</p> <p>Prebentzio- eta erantzun-estrategia zabalagoen garrantzia berresten du, eta sexu-indarkeriaren aurkako borroka</p>

	eraginkorragoa ziurtatzeko rol espezifikoak ezartzera deitzen du, hala nola emakumeak babesteko aholkulariak.
2122 (2013)	Esplizituki baieztatzen du beharrezkoa dela bake iraunkorraren ikuspegi integratu bat ezartzea, non emakumeek eremu guztietan parte hartzea funtsezko elementua den, armagabetzearen eta genero-berdintasunaren arteko lotura barne. Gatazka armatuaren funtsezko zergatiak eta emakumeek segurtasunaren arloan dituzten arriskuei heltzeko beharra aipatzen du, eta gatazkek eragindako emakumeei sektore anitzeko laguntza-zerbitzuak emateko eskatu.
2242 (2015)	Emakumeak eta bakea eta segurtasunari buruzko agenda ezartzeko estrategiak eta baliabideen esleipena ebaluatzeko eskatzen du.
2467 (2019)	<p>Gatazkan dauden mundu osoko aldeei dei egiten zaie indarkeria sexualari berehala amaiera emateko eta etorkizunean ekintza horiek saihesteko.</p> <p>Ebazpenak lehen aldiz kokatzen ditu sexu-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak eszenaren erdigunean.</p> <p>Ebazpenak orain arte artatu gabeko sexu-indarkeriaren biktimen taldeak ere hartzen ditu ardatz; izan ere, haurrak eta emakumeak ez ezik, gizonak ere izan daitezke sexu-indarkeriaren biktima.</p>
2493 (2019)	Agenda ezartzeko eskatzen die estatuei, eta aurrerapen horri buruzko informazioa eskatu; eta, berriz ere, dei egiten die estatuei emakumeek bake-negoiazioetan eta bakea eraikitzeke prozesuetan parte har dezaten sustatzeko.

Taulako edukia: Norberak egina, RESDAL(2015) eta Amt (2019).

Laburbilduz, Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna agendaren ebazpen guztiak bat datoz hiru ildo nagusitan: emakumeak babes-subjektu gisa hartzean, emakumeak bakegintzarako subjektu gisa hartzean eta prozesu guztietan genero ikuspegia txertatzean.

Lehen ildoari jarraiki, Ebazpenek ezartzen dute emakume eta neskatuen babesa bermatzea, sexu-indarkeria eta genero-indarkeria geldiaraztea, zigorgabetasuna justiziaren bidez amaitzea, Nazio Batuetako langileen gehiegikeriak ez onartzea eta sexu-indarkeriaren prebentzioa sartzeari. Bigarren ildoari dagokionez, emakumeen ordezkariak handitzea eskatzen da gatazka prebenitzeko, kudeatzeko eta konpontzeko hartzen diren erabakien maila guztietan. Eta, azkenik, bakea mantentzeko prozesuetan genero ikuspegia txertatze aldera, genero gaietan adituak diren aholkularien figura azaltzen da (Sepulveda-Soto eta Rivas-Pardo, 2019).

Bestalde, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 ebazpenak agindutako aldaketa eragin dezan, haren aplikazioak NBEren egoitzatik harago joan behar du, eta nazio- eta toki-mailetara hedatu. Alde askotako sistema honetan, estatuak dira oraindik ere emakumeen eskubideen errespetua eta babesa bermatzeko arduradun nagusiak. Horregatik, 1325 Ebazpena eta ondoren onartutakoak betetzeko, estrategia nazionalak garatzeko deia egin zaie NBEko estatukideei.

Hala, Akzio Plan Nazionalak (APN) funtsezko tresnak dira Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna agendaren konpromisoak ekintza zehatz bihurtzeko. APNak Estatu baten barne- eta/edo kanpo-politikaren nondik norakoak azaltzen dituzten dokumentuak dira, Emakumearen eta Bakearen eta Segurtasunaren helburuak betetzeko; hau da, emakumeen parte-hartzea, sexu-indarkeriaren aurkako babesa, gatazken prebentzioa eta gatazken ondorengo bakearen finkapena besteak beste. Funtsean, APNek tresna bat eskaini behar dute 1325 Ebazpena testuinguruan kokatzeko eta haien helburuak errealitate nazional eta lokaletan txerta daitezen.

Akzio Plan Nazionalak modu inklusiboan prestatu, aplikatu eta ebaluatu behar dira, gizarte zibileko sektore zabal baten parte-hartze goiztiar, zabal eta benetakoarekin, emakumeek zuzendutako gizarte zibileko erakundeak barne. Prozesu inklusibo batek emakumeen giza eskubideen berdintasuna defendatzen baitu, eta baita ekintza-planen edukia eta tokiko aplikazioa indartu ere, alderdi interesdunen parte-hartzearen eta konpromisoaren bidez.

Ildo horretan, honezkero, 92 Estaturik garatu dituzte Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna agendari buruzko beren Akzio Plan Nazionalak, Erresuma Batuak eta Irlandar Errepublikak barne. Kontuan izanda lan honen ikerketa-objektuarekin harreman estua dutela, azken bi horienak aurrerago aztertuko ditugu.

2.3. Emakumearen kontrako edonolako bereizkeria deuseztatzeari buruzko hitzarmena (CEDAW) eta bere lotura 1325 Ebazpenarekin

2.3.1. CEDAWren aurkezpena eta bere erabilera 1325 Ebazpena indartzeko

Emakumearen kontrako edonolako bereizkeria deuseztatzeari buruzko hitzarmena (ingelesez, *Convention on the Elimination of all Forms of Discrimination Against Women*, CEDAW) 1979an onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak 34/180 Ebazpenean. Hortik aurrera, berresteko aukera ireki zen Estatuentzat eta azkenean Nazioarteko tratatua 1981eko irailaren 3an jarri zen indarrean, hitzarmenaren testuaren beraren arabera beharrezkoak ziren 20 estatuen berrespenak egin zirenean (27. artikulua). Tratatu hura, sexuan eta generoan oinarritutako emakumeen kontrako bereizkeria oro ezabatzea bideratutako lehen nazioarteko hitzarmen global eta juridikoki nahitaezko hartzen da (Velázquez, 2011).

Gure kasuan, Irlandar Errepublika eta Erresuma Batua biak dira Hitzarmenaren estatukide, lehenengoa 1985az geroztik, atxikipenaren bidez; eta bigarrena, 1981ean sinatutako tratatua 1986an berretsi ondok.

Esan daiteke, hitzarmenaren edukiaren azpian dagoen printzipioa ez dela emakumeenganako bereizkeria mota guztiak ezabatzearena soilik. CEDAW-k urrats bat eman nahi du haratago eta horretarako, berdintasunaren esanahia definitzen du, emakumearen aurkako etengabeko bereizkeria dagoen eremu zehatzak identifikatu eta aztertzen ditu eta emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna – eta ez juridiko hutsa – lortzeko helburu eta neurri espezifikoak ezartzen ditu. CEDAW, beraz, ez da emakumeen eskubideen adierazpen huts bat, baizik eta, estatu kideek eskubide horien errespetua berma dezaten akzio programa bat (Zirion, 2012).

Hitzarmena ez ezik, CEDAWren 17. artikuluari jarraiki, 1982an Emakumearen Kontrako Edonolako Bereizkeria Deuseztatzeko Komitea sortu zen (aurrerantzean, Komitea). 23 aditu independentek osatzen dutena, 4 urterako hautatuak (berriz hautatuak izateko aukerarekin), estatukideek proposatutako pertsonen zerrenda baten isilpeko sufragio bidez.

Komitearen eginkizun nagusia, estatukideek CEDAWren aplikazioan egindako aurrerapenak aztertzea da. Ildo horretan egiten dituzten ahaleginak frogatzeko, estatukideek aldian-aldian txostenak aurkeztu behar dizkiote Komiteari, CEDAWren xedapenak eragingarri egiteko hartu dituzten lege-, epaiketa-, administrazio- edo bestelako neurriei eta neurri horiek aplikatzean egindako aurrerapenei buruz.

Txostenak jaso eta aztertzeaz gain, CEDAWren 21. artikulua dioenez, Komiteak aukera du “estatukideek igorritako datu eta txostenen azterketan oinarritutako iradokizun eta gomendio orokorrak egiteko”. Hala, Komiteak proposamen garrantzitsuak egin ditu bere lana eta estatuen txostenak hobetzeko eta, jakina, konbentzioaren xedapenak aplikatzeko.

Hortaz, Komiteak 2013an CEDAWren 30. Gomendio Orokorra onartu zuen, emakumeei buruzkoa gatazken prebentzioan, gatazka-egoeretan eta gatazken ondorengo egoeretan.

Gomendio orokor horrek lotura zuzena du Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna agendarekin, eta bistan da bietako bakoitzak bestea osatu eta indartzeko balio duela.

Hain zuzen ere, 1325 Ebazpenaren irismen zabalak CEDAWren aplikazioa zabaltzeko bitarteko baliotsua ematen du. Giza eskubideen Nazioarteko Tratatu gisa, CEDAW loteslea da juridikoki itun honen parte diren estatuentzat. Hala ere, gatazketan parte hartzen duten estatu batzuek ez dute CEDAW berretsi, ezta estatuz kanpoko agente, militar eta talde matxino armatuek (Estatuek baino ezin dute berretsi eta), askotan emakumeen giza eskubideen urraketan erantzule zuzenak diren arren. Hala ere, 1325 Ebazpenak eskatzen du gatazkaren fase guztietan, bake-negoiazioetan eta gatazka ostean parte hartzen duten eragile guztiek emakumeen giza eskubideak berrezarri, babestu eta errespetatu behar dituztela, eta kontuak eman behar dituztela emakumeen eskubideei aplika dakiekeen nazioarteko zuzenbidearen aurrean.

1325 Ebazpenak emakumeen parte-hartzea eta genero-ikuspegia gatazken prebentzioaren, kudeaketaren eta konponbidearen alderdi guztietan txertatu behar dela dio baina ez du helburu horiek lortzeko moduari buruzko orientazio arauemaile edo operatibo zehatzik ematen. CEDAWk betebeharrak horiek betetzeko sarrera-puntuak, berariazko urratsak eta orientabideak eskaini ditzake. Hitzarmen horrek azaltzen du zer den emakumearen aurkako diskriminazioa eta nola ezabatu; diskriminazioaren ondorioak jorratzen ditu; eta, are garrantzitsuagoa dena, genero-berdintasuna lortzeko hartu behar

diren neurri espezifikoak ematen ditu CEDAWren artikuluen eta Gomendio Orokorren bidez.

Batzen direnean, 1325 Ebazpenak eta CEDAWk bi arauetako batek ere berez izan ez lezakeen eragina izan dezakete. Gatazken kudeaketaren, ebazpenaren eta trantsizioaren etapa bakoitzerako, lotura zuzena dago 1325 Ebazpenean ezarritako arauen eta CEDAWren artean, bai eta CEDAWk adierazitako arauak eta Batzordearen Gomendio Orokorrek betetzeko moduei buruzko aholkularitza ere (Bitar, 2020).

2.3.2. CEDAWren Komitearen 30. Gomendio Orokorren eta EBSren ebazpenen edukia

Hasteko, gatazken prebentzioari heltzen dio CEDAWren Komitearen 30. Gomendio Orokorrek (GO30) eta indarkeriaren prebalentziaren eta genero-diskriminazioaren hazkundearen eta gatazken eztagaren arteko korrelazioa nabarmentzen du. Adierazten du emakumeak gatazkek prebenitzeko prozesuetatik kanpo geratzen direla eta Konbentzio horren xedapenetan oinarrituta, xedatzen du gatazkek prebenitzeko esku-hartzeek eta politikek diskriminaziorik gabeak izan behar dutela eta genero-desberdintasunak indartzea saihestu behar dutela. Horren ondorioz, berdintasun substantiboari buruzko xedapenek bat egiten du EBSri buruzko ebazpenekin batera, estatukideek emakumeen parte-hartzea areagotu dezaten prebentzio-ahaleginetan. Gainera, bai GO30ak bai 2122 Ebazpenak aitortzen diete garrantzia Armen Merkataritzari buruzko Tratatuari (2013) eta armen ugaltzearen genero-inpaktuei buruzko xedapenei. GO30en edukiak bi esparru horiek gatazken prebentzian duten erantzukizuna indartzen dute eta alerta goiztiarreko sistemetan generoarekin lotutako adierazleak sartzeko beharra azpimarratzen du.

Genero indarkeriari helduta, 30. Gomendio Orokorrek adierazten du emakumeen eta nesken aurkako indarkeria genero-desberdintasunen ondoriozko diskriminazio-modu bat dela, Konbentzian jasotzen den bezala. Halaber, arreta jartzen du gatazkek genero-desberdintasunak areagotzeko duten ahalean, zeinak areagotu egiten duen emakumeen eta nesken genero-indarkeriarako arriskua. GO30ak jasotzen du alde batetik, emakumeek eta neskek nola senti dezaketen sexu-indarkeria borrokalari armatuen gatazkaren taktika gisa, bestetik, gatazkaren garaian eta ondoren hainbat eragileren indarkeria-modu

zabalagoak izan ditzaketela, eta azkenik, indarkeria horrek nola eragiten duen emakumeek bizitza publikoan duten parte-hartzean (34-38 paragrafoak).

Hala, Hitzarmenaren arabera estatuek indarkeria mota horiek guztiak prebenitzeko, ikertzeko eta zigortzeko neurriak hartzeko dituzten betebeharrak garatzen ditu. Horretarako, emakumeek gatazkekin lotuta jasan ditzaketen genero-indarkeria moten interpretazio zabala eskaintzen du, bai eta inplikaturako testuinguru eta aktoreen sorta ere. EBSren ebazpenetan arreta bereziki "gerra-taktika gisa edo biztanleria zibilaren aurkako eraso orokor gisa erabiltzen den sexu-indarkeria"-n jartzen da; horrenbestez, bi esparru horiek batera hartzean, estatukideek emakumeek gatazkekin zerikusia duen indarkeriari dagokionez izandako esperientziak hobeto ulertzea eta ikuspegi zabalago bat izatea susta dezakete, eta Komiteak horiek gainbegiratuko ditu.

Gizakien salerosketari ere eskaintzen dio bere esparrua GO30ak eta gatazkan zehar eta ondoren larriagotzen den generoan oinarritutako diskriminazio gisa aipatzen du. EBSren ebazpenek ez diote berariaz heltzen salerosketari, eta, beraz, GO30ak indartu egiten du gai horren erantzukizuna, gatazkekin lotutako gai gisa. Gomendio orokorraren arabera, gatazkek eragindako testuinguruak salerosketaren jatorri-, igarobide- eta helmuga-lekuak dira, eta migrazio-politika murriztaileek areagotu egin dezakete emakumeek salerosketan erortzeko duten zaugarritasuna.

Pertsonen salerosketari buruzko xedapenetan, 30. Gomendio Orokorrak "sexu-esplotazioa eta sexu-abusua" ere jorratzen ditu. Honakoa, EBSren ebazpenetan jorratzen den gaia da, eta NBEko langileek sexu-abusu eta esplotazioekiko zero tolerantziako politika egiteko ahaleginak aplikatzea eta areagotzea ezartzen du. GO30 haratago doa eta zabaldu egiten du gai horri buruz kontuak eman behar dituzten aktoreen sorta, armada nazionalak, bakea mantentzeko indarrak, mugetako polizia, immigrazioko funtzionarioak eta eragile humanitarioak barne hartzeko; gainera, ekintza horiek prebenitzea, jazartzea eta zigortzeko gomendioa ematen du.

Parte hartzeari dagokionez, Konbentzioaren arabera, estatuek bermatu egin behar dute emakumeek bizitza publikoan eta politikoan eta nazioartean parte hartzeko berdintasuna dutela (7. eta 8. artikulua). GO30en bidez, printzipio hori gatazketan, trantsizio-aldietan eta berreskuratze-prozesuetan aplikatzeari buruzko orientazioa ematen zaie estatuei. Bai GO30ek bai EBSren ebazpenek estatuei eskatzen diete berma dezatela emakumeek sartzea nazioarteko negoziazioetan, bakeari eusteko jardueretan, prebentziozko

diplomaziaren maila guztietan, bitartekaritzan, laguntza humanitarioan, adiskidetze sozialean, bake-negoiazioetan eta zigor-arloko justizia-sisteman. Gainera, Konbentzioarekin bat etorritik, GO30ak hainbat estrategia aplikatzeko eskatzen du, hala nola kuoten erabilera, eta horrek funtsezko errefortzua eskaintzen dio Emakumeak eta Bakea eta Segurtasunari buruzko ebazpenetan aurreikusitako xedapen horien aplikazioari.

30. Gomendio Orokorrak jarraian landa eremuko emakumeen sarbidea hezkuntzara, enplegura eta osasunera aztertzen du. Dioenez, gatazka armatuen ondorioz sortzen diren azpiegituren eta zerbitzuen kolapsoak eragin bereziki kaltegarria du emakumeen eskubide sozioekonomikoetan. EBSren ebazpenek emakumeentzako oinarrizko zerbitzuen hornidura bermatzeko beharra aitortzen dute, bereziki sexu-indarkeriak osasunean dituen inpaktuei aurre egiteko eta gatazkaren ondoren emakumeek aukera ekonomikoak izan ditzaten bermatzeko.

Eta ildo horretan, bai GO30ak bai EBSren ebazpenek konpromisoa adierazten dute abortu segurua lortzeko gatazka-inguruneetan eta gatazka osteko inguruneetan. Bere horretan Segurtasun Kontseiluaren 2122 Ebazpenak estatukideei eta Nazio Batuetako erakundeei eskatzen die berma dezatela laguntza eta finantzaketa humanitarioaren barruan sar ditzatela zerbitzu mediko, juridiko, psikosozial eta biziraupen-zerbitzuak gatazka armatuek eta gatazken ondorengo egoerek eragindako emakumeak artatzeko. GO30ak halaber, abortu seguruaren gaiari heltzen dio zuzenean, ulertzen baitu sexu- eta ugalketa-osasunaren arretak barne hartzen duela, besteak beste, informazioa eskuratzeko aukera, familia-plangintzako zerbitzuak, larrialdietako antisorgailuak barne; amaren osun-zerbitzuak; abortu seguruko zerbitzuak; eta abortuaren ondorengo arreta (52. paragrafoa (c)).

Azkenik, Gomendio Orokorrek estatuetatik espero diren neurriak zehazten ditu, hala, oro har emakumeen giza eskubideak sustatzen dituzten ikuspegi indartuak sartu eta "genero-berdintasuna gatazkaren ondoren ekonomia jasangarria lortzeko aurretiazko baldintza gisa sustatzen duten ekonomia suspertzeko estrategiak" txertatzeko (52. paragrafoa, (a)).

Desplazamendua, errefuxiatuak eta asilo-eskatzaileak direla eta, 30. Gomendio Orokorrak "desplazamendu-zikloaren etapa guztietan" Konbentzioaren aplikagarritasunari buruzko orientazioa ematen du (53. paragrafoa). Horrela izanda, azaltzen du nola eragiten duten genero-desberdintasunek emakumeek lekualdatzean

gizonekin alderatuta duten esperientzia bereizia sortzeko. Hortaz, GO30ak eta EBSren ebazpenek, biek, eskatzen dute neurriak har daitezela lekualdatutako edo errefuxiatutako emakumeen behar espezifikoari aurre egiteko; besteak beste, indarkeriaren aurkako babesa eta emakumeek lekualdatze-lekuetan erabakiak hartzeko orduan parte har dezaten sustatzea. Gainera, GO30ak ebazpenen irismena zabaltzen du, "genero-arrazoiengatiko diskriminazio-kasu guztiak" ikertzeko eta jazartzeko eskatzen baitu, bai eta "askotariko diskriminazioa jasaten duten emakumeek aurre egin behar dieten arrisku espezifikoak jorratzeko ere.

Ondoren, armagabetze, desmobilizazio eta gizarteratzeari egiten die erreferentzia 30. Gomendio Orokorrak, esanez emakumeak programa horietatik kanpo geratu ohi direla. Hala, GO30ak EBSren ebazpenek xedapenak berresten ditu programa horietarako emakumeen sarbidea berma dezaten eta programa horiek gainditu ditzaten emakumeen aukera ekonomikoak eragozten dituzten genero-estereotipoak.

Bestalde, GO30ak orientazioa ematen du Estatuaren Konstituzioa erreformatzeko eta hauteskundeak antolatzeko prozesuak nola erabil daitezkeen jakiteko, "trantsizio-aldian eta ondoren genero-berdintasunaren oinarriak ezartzeko" (RG30, 70. paragrafoa). Bai GO30ak bai EBSren ebazpenek indartu egiten dute estatuaren konstituzioak idazteko prozesuetan genero-gaietan arreta jartzeko duten betekizuna eta baita emakumeen giza eskubideak bermatzeko beharra ere.

Justiziara jotzeko aukerari dagokionez, bi esparru legalek elkar indartzen dute emakumeek gatazka osteko kontuak emateko prozesuetan justiziara iristeko dituzten beharrak aipatzean; esate baterako, justizia trantsizionaleko mekanismoetan genero-urraketengatiko amnistiak arbuiatzeko eskatzen dute; eta emakumeen presentzia bermatzen dute trantsizioko justizia-prozesu guztien diseinuan, funtzionamenduan eta jarraipenean parte hartzea bermatzen dute horrela gatazka ondorengo justizian emakumeek justiziara jotzeko aukera erreala izateko. Ildo horretan, GO30ak indartu egiten ditu EBSren ebazpenak, eta azpimarratzen du gatazka batetik ateratzen diren estatuaren emakumearen aurkako diskriminazio mota guztien debekua bermatzeko duten betebeharra.

Azkenik, EBS agendak irismena urria duen bi gairi ere egiten die erreferentzia 30. Gomendio Orokorrak. Alde batetik, nazionalitate eta apatridia gaiari, esanez emakume orok (eta baita beren seme-alabek) eskubidea duela naziotasunerako. Eta bestetik,

ezkontza eta familia harremanen gaiari; indarrezko ezkontza, haurdunaldi, abortu edota antzutzek prebenitu eta zigortzeko xedatuz eta ondarea izateko eta oinordetzak jasotzeko emakumeen eskubidea aitortuz.

2.4. 1325 Ebazpenari kritikak

1325 Ebazpena eta Nazio Batuen Emakumea, Bakea eta Segurtasuna agenda nazioarteko segurtasunaren ikuskera alternatiboa eraiki nahi zuten hainbat nazioarteko aktibistaren presioaren ondorio izan ziren, tartean feministena. Hala ere, horien edukia, garapena eta aplikazioa zein izan den kontuan izanda, hainbat kritika jaso dituzte.

Gero eta frogak gehiagok iradokitzen dute emakumeak bake-elkarrizketetan eta bakearen eraikuntzan sartzeak, genero-inpaktu positiboa izateaz gain, eragin positiboa duela bakearen iraunkortasunean (Paffenholz, 2015). Nazio Batuen EBS agendak berebiziko garrantzia du emakumeak eta genero-ikuspegiak bakean sartu eta bakea eraikitzeko orduan genero-ikuspegiak bermatuko dituen esparru bat eskaintzeko. Hala ere, honek ikuspegi sinple bat ekar dezakete: "Emakumeak gehitzea eta kito" (*add women and stir*, nahiko kritikatu izan den estrategia), hau da, emakumeak honezkero existitzen diren erakunde eta egituretan sartzea, funtsezko aldaketarik gertatu gabe. EBSren agendaren ikuspegi benetan eraldatzaile baterako beharrezkoa da egiturazko desberdintasunen irakurketa sakona egitea, testuinguru sozial espezifikotik, gatazkan dauden gizarteetako emakumeen ikuspegi, esperientzia eta identitateen aniztasuna kontuan hartzen duen ulermen intersektionalarekin batera (Pierson, 2019).

Ebazpenaren helburua gatazka ondoko lurraldeetan estatuek bakea eta segurtasuna ezartzeko modua aldatzea da, emakumeen presentzia handituz eta genero-ikuspegia txertatuz. Hala ere, indarkeriazko gatazka saihestezin gisa eraikitzen jarraitzen duten eta egitura militar tradizionalen barruan bakea eta genero-segurtasuna eman nahi duten ebazpenok antifeministatza jo dituzte askok (Cockburn, 2010).

Bestalde, testua irakurrita, gizonak EBS agendatik kanpo geratzen dira. Generoen arteko botere-harremanak aintzat ez hartzeak dualismo faltsua sortzen du gizonen eta emakumeen artean, eta, bertan, aditzera ematen da emakumeak berez baketsuak direla eta babesa behar dutela, eta gizonak direla indarkeria eta diskriminazioa sortzen dutenak, zeinetatik emakumeak babestu behar diren. Argi dago, halaber, gizonak direla

emakumeen parte-hartzea eta segurtasuna emateko boterea dutenak; beraz, gizonak dira emakumeak bakearen eta segurtasunaren eraikuntzan sartzearen zaindari. Emakumeak ongi etorriak dira parte hartzera, baina soilik praktikan boterea egikaritzen dutenek – gizonek – gonbidatzen badituzte (Pierson, 2019).

Ebazpenek nazioarteko komunitateari gatazketako sexu-indarkeria nabarmentzen lagundu dioten arren, isiltasun erlatibo bat gorde dute beste gai eta identitate batzuei buruz. Adibidez, ebazpenek ezer gutxi esan dute ugalketa-eskubideei buruz, eta aipatzen direnean “osasunaren hizkeran kokatzen dira eskubideenean orde”. Bestalde ebazpenak heteronormatibo gisa ere deskriba daitezke, gatazkan dauden gizarteetan lesbiana, gay, bisexual, transexual, queer edo intersexualek (LGBTQI) aurre egin behar dioten indarkeria homofobo eta transfobo partikularrari aipamen txikia eginez (Hagen, 2016).

Azkenik, feminismo postkolonialetik ere hainbat kritika jaso ditu EBS agendak. Harreman kolonialak ulertzeko, Gayatri Spivak kritika postkolonialak hala deskribatzen ditu: “emakume beltzaranak gizon beltzaranengandik salbatzen dituzten gizon zuriak”. Horrez gain, nabarmentzen du genero, arraza eta sexualitatean ematen diren hierarkiak funtsezkoak direla inperialismoaren politika ekonomikorako.

Egia da, 1325 Ebazpenak generoa birkontzeptualizatu eta nazioarteko segurtasun-agendako genero binarotasuna hausten dituela; ez baititu “emakume beltzaranak” “gizon zuriek” erreskatatu beharreko biktima huts gisa irudikatzen, baizik eta, agente aktibo gisa ere bai (biktimatik bakegilera). Hala ere, arraza-sexu hierarkiak normalizatzen ditu, nagusi diren nazioarteko segurtasun diskurtso eta praktikak sostengatzen dituztenak; nazioarteko komunitatea "gizon beltzaranengandiko" "emakume beltzaranen" salbatzaile gisa kokatzen baita . Horrela, 1325 Ebazpena proiektu inperialistatzat har daiteke (Orford 2002), behetik egindako proiektu feminista transnazonaltzat baino (Pratt, 2009).

Beraz, benetako proiektu kontra-hegemoniko bat eraiki eta gatazka, segurtasunik eza eta bidegabekeria eragiten dituzten botere-egitura menderatzaileak eraldatzeko beharrezkoa da beste botere-harreman batzuen gainetik generoa lehenesten duten pentsamendu feministaren korronteak alde batera uztea. Izan ere, generoa arrazaren, sexualitatearen, klasearen eta une historiko jakin batzuetako beste botere-harreman batzuen bidez eratutako zerbait bezala ikusi behar da (*Ibidem*, 2013).

Horrekin lotuta, aipatzekoa da badagoela joera bat, batez ere mendebaldeko estatuen aldetik, 1325 Ebazpena batez ere – eta kasu batzuetan eksklusiboki – beren lurraldeetatik kanpoko testuinguruetan aplikatzeko. Joera horrek ez du desberdintasun handirik estatuek gerra-arauak (*ius in bello*) beren lurraldean tokia hartzen duten gatazketan aplikatzeko izan ohi duten borondate faltarekin. Hala ere, 1325 Ebazpena leku guztietan da aplikagarri eta kontua ez da “hirugarren munduko emakumeak salbatu edo babestea soilik” (Otto, 2006).

Garrantzitsua da hortaz, estatuen akzio planak ikuspegi kritiko batetik aztertzea, jakiteko estatuek nola interpretatzen dituzten 1325 Ebazpenari jarraiki dagozkien betebeharrak. Izan ere, badira estatuak, plan integralak (barne eta kanpo mailan eta esparru guztietan eragina dutenak) onartu beharreak, beren betebeharrak kanpo-harremanetan baino oinarritzen ez dituztenak. Hala, Europako estatuek egindako plan gehienak Kanpo Gaietako ministerioek zuzendu dituzte (Swaine, 2009).

Azaldu dugun kanpo- eta barne-politiken arteko desberdintasun argia da Erresuma Batuen Akzio Plan Nazionala. Izan ere, aurrerago ikusiko dugun legez, 1325 Ebazpena garatzeko Akzio Plan Nazionala egin badu ere, ez du beretzat “barne mailakoa” den Ipar Irlandako gatazka txertatu Emakumeak eta Bakea eta Segurtasunari dagozkion helburuetan.

3. EBAZPENAREN APLIKAZIOA IPAR IRLANDAKO BAKE PROZESUAN

3.1. Gatazkaren azalpen laburra

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena bera eta berorren aplikazioa Ipar Irlandako bake prozesuan aztertu baino lehen, Ipar Irlandako gatazka armatuaren azalpen labur bati ekingo diogu, gatazkak bera eta bake prozesua zertan datzan ulertzeko.

Ipar Irlandako gatazka (ingelesez “*The Troubles*” bezala ezagutua) gatazka armatu nazionalista bat izan zen, XX. mendearen bigarren erdian heriotza ugari eragin zituena. Gatazkak aurrez aurre ipini zituen alde batetik, Ipar Irlandako unionistak, erlijio protestantea praktikatzen zutenak eta, Erresuma Batuekiko harremanak babestearen

aldekoak; eta, bestetik, Irlandako errepublikanoak, gehienak katolikoak, eta independentziaren aldekoak edo probintzia Irlandako Errepublikan sartzearen aldekoak.

Bi aldeek armak erabili zituzten, eta lurraldea hiru hamarkada iraun zituen indarkeria espiral batean hondoratu zen, 1968ko urriaren 8tik 1998ko apirilaren 10eko, Ostiral Santuko Akordioa sinatu arte. Akordio honek gobernu berri baten oinarriak ezarri zituen, non katolikoek eta protestanteek boterea partekatzen duten. Hala ere, indarkeriak jarraitu egin zuen data horren ondoren, eta oraindik ere noizbehinka eta eskala txikian jarraitzen du.

Parte hartzaile nagusiak honakoak izan ziren: paramilitar errepublikanoak, hala nola, Irlandako Behin-behineko Armada Errepublikanoa (IRA) eta Askapen Nazionalerako Armada Irlandarra (INLA); paramilitar leialak, hala nola, Ulsterreko Borondatezko Indarra (UVF) eta Ulsterren Defentsarako Elkarteak (UDA) eta Britainiar Estatuko segurtasun indarrak: Armada Britainiarra eta Royal Ulster UC (*Constabulary*) aktibistak. Irlandako Errepublikako segurtasun indarrek paper txikiagoa izan zuten.

Gatazka Ipar Irlandako Eskubide Zibilen Aldeko Elkartearen kanpaina batean hasi zen, gobernu protestante/unionistak eta indar polizialek gutxiengo katoliko/nazionalistaren aurka egindako diskriminazioari amaiera emateko. Agintariak protesta-kanpaina hori zapaltzen saiatu ziren, eta poliziaren basakeria leporatu zitzaizkien; unionisten indarkeriarekin ere topo egin zuten, fronte errepublikanoa zela argudiatuz. Tentsioen gorakadak 1969ko abuztuaren istilu bortitz larriak eta britainiar tropen hedapena ekarri zituen, Britainiar Armadaren operazioak luzeena bihurtu zelarik. "Bakearen harresi" izenekoak ere eraiki ziren, bi komunitateak elkarrengandik banatuta mantendu asmotan. Hasiera batean, katoliko batzuk, armadari, indar neutralagoa bailitzan ongietorria eman zioten, baina, laster, etsai eta partzial bezala ikusi zen. Horrela gertatu zen, bereziki, 1972ko Igande Odoltsuaren ondoren, non Ipar Irlandako Gobernuaren aurkako manifestazio batean, britainiar armadak inolako arrazoirik gabe manifestariak tirokatu zituen.

"*The Troubles*" amaiera deseroso batera iritsi ziren bake-prozesu baten bidez, zeinetan erakunde paramilitar gehienek su-etena aldarrikatu zuten, IRAren armak erabat desegin ziren, polizia erreformatu zen eta armada britainiarra Irlandako kale eta mugetatik erretiratu zen. Belfastko Akordioaren sinatzaileek adostutakoaren arabera Ipar Irlandak

Erresuma Batuaren barruan jarraituko du Ipar Irlandako hautesleen gehiengoak kontrakoa bozkatu ezean.

Ipar Irlandan bake prozesua aurrera eraman eta Belfasteko Akordioa sinatu bazen ere, ezin esan daiteke gatazka amaituta dagoela; sentimendu kontraerriek hor jarraitzen baitute, eta ondorioz, oraindik ere eta noizbehinka istiluak pizten dira. Gainera, Brexit-aren eraginez tentsioak gora egin du, Ipar Irlanda bi merkaturen artean gelditu da eta.

Brexit-aren negoziazioetan, alde guztiek adostu zuten Ipar Irlandako bake akordioa babestea (Ostiral Santuko akordioa) lehentasun osoa zela. Horrek esan nahi zuen Irlandako Errepublikaren (Europar Batasuna) eta Ipar Irlandaren (Erresuma Batua) arteko lurreko muga irekita mantentzea eta azpiegitura berriak saihestea (hala nola kamerak eta mugako postuak) funtsezkoa zela. Hori erraza zen Irlandako uharte osoa Europar Batasunaren (EB) zati zenean. Baina Brexit-aren ondoren, beste akordio bat behar zen, EBk salgai jakin batzuk merkatu bakarrera sartzeko puntuan ikuskatzea eskatzen duelako. Beraz, EBk eta Erresuma Batuak 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen Ipar Irlandako Protokoloa negoziatu zuten.

Protokoloari jarraiki, Ipar Irlandak EBko arau asko jarraitzen ditu, bereziki salgaien merkataritza arautzen dutenak, eta ondorioz, Ipar Irlandaren eta Britainia Handiaren (Ingalaterra, Eskozia eta Gales) arteko "arauzko" muga berri bat ezarri da salgaien kontrol berriak, alegia.

Kontrol horiek Ipar Irlandaren eta Irlandako Errepublikaren artean ezarri beharrean, Erresuma Batua bitan zatituz ezarri izana, hainbat talde unionistak Erresuma Batuaren batasunaren aurkako erasotzat hartu dute. Eta tentsioa areagotu egin da bai kalean (azken hileotan istiluak egon dira unionisten hainbat protestatan) eta baita maila politikoan ere (Arlene Foster Ipar Irlandako lehen ministro eta DUP Alderdi Demokratiko Unionistako buruak dimisioa aurkeztu du Brexit-aren kudeaketaz kexu diren alderdikide kontserbadoreenak haren aurka altxatu ostean).

Dena den, Akordioaren Protokoloaren 18. artikulua dioenez, lau urteren buruan Erresuma Batuak aukera eman beharko die Ipar Irlandako hiritarrei Europako Batasuneko Merkatu Bakarraren zati ala Erresuma Batuko barne merkatuaren parte izan nahi duten erabakitzeke.

3.2. Erresuma Batua eta Irlandar Errepublikaren Akzio Plan Nazionalak

3.2.1. Erresuma Batuaren Akzio Plan Nazionala

Erresuma Batuak 2006an jarri zuen indarrean bere lehen akzio plana, eta gerora beste hiru ere argitaratu ditu 2012, 2014 eta 2018. urteetan. Dokumentu sakona da, Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agenda irudikatzen duena, eta agenda horren lau zutabeetan oinarritzen da: prebentzioa, parte-hartzea, babesa eta, sorospena eta berreskuratzea.

Agenda hori betetzeko, honako helburu hauek biltzen ditu:

Hasteko, erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte-hartze esanguratsua eta adierazgarria areagotzea, baita gatazkak prebenitzeko eta bakea eraikitzeko orduan ere. Jarraian, bake-operazioetarako nazioarteko arauak eta aginduak ezartzean eta martxan ipintzean genero-ikuspegia sistematikoki aplikatzea. Genero-indarkeriari dagokionez, hura prebenitzeko eta hari erantzuteko neurri eraginkorrak txertatzen dituzten esku-hartzeen kopurua eta eskala handitzea. Erantzun humanitarioari ere erreparatzen dio Erresuma Batuko APNak eragile humanitarioek eta esku-hartzeek, partaidetza eta lidergo esanguratsuak sustatzen dituzten beharretan oinarritutako erantzunen bidez, emakumeen beharrei modu eraginkorragoan erantzutea xedetzat jarritz. Gainera, segurtasun- eta justizia-agenteak gero eta arduratsuagoak izatea emakumeen aurrean, eta haien eskubide eta premiei erantzutea ere aipatzen da eta baita indarkeriazko estremismoa prebenitzeko eta indargabetzeko estrategien garapenean emakumeen parte-hartzea eta lidergoa bermatzea ere. Azkenik, gobernu britainiarrak bere gaitasuna, prozesuak eta lidergoa indartzen jarraitzeko xedea ere jasotzen da EBS agendaren konpromisoak betetzeko.

Gizarte zibileko erakundeei dagokienez, Erresuma Batuko APNko entzule eta bazkide eragingarriak dira, eta beren iruzkin eta gomendioekin laguntzen dute, prozesua koordinatzeaz gain. Gainera, bai gizarte zibileko erakundeek bai sektore akademikokoek aktiboki parte hartu zuten Erresuma Batuko APNren garapenean, aplikazioan, ebaluazioan eta jarraipen-jardueretan.

3.2.2. Irlandar Errepublikaren Akzio Plan Nazionala

Irlandak hiru Akzio Plan Nazional onartu ditu orain artean, 2011, 2015 eta 2019. urteetan, hain zuzen ere. Irlandako APNk Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna agendaren ikuspegi holistikoa hartzen du, eta herrialdeak eremu guztietan genero-berdintasuna sustatzeko eta

pobreziaren, desberdintasunaren eta klima-aldaketaren ondorioak generoaren arabera sakonago aztertzeko duen konpromiso orokorra azpimarratzen du. Ikuspegi horrekin bat etorritik, APNk, bakearekin, segurtasunarekin eta gatazken prebentzioarekin lotutako gaietan emakumeek parte-hartze esanguratsua izateko beharra aitortzeaz gain, indarkeria, desberdintasuna eta gatazkek eragiten dituzten genero-arauak sakon aztertzeko beharra ere nabarmentzen du.

Irlandar Errepublikako Akzio Plan Nazionalak honako lau multzootan banatzen ditu bere xedeak EBS agendari dagokionez: prebentzioa, parte-hartzea, babesia eta sustapena.

Hasteko, prebentzioari helduta, gailentzen du genero-berdintasuna eta emakumearen ahalduntzea lehentasunezkoak direla Irlandaren lan humanitario eta garapen-lan osoan, baita gatazkek eragindako testuinguruetan ere. Gainera, aipatzen du genero-azterketa txertatuko dela Irlandak gatazkek eragindako testuinguruetan egiten duen lanean, baita gatazken prebentzioari, bakearen eraikuntzari eta segurtasun-politikari eta armagabetzeari dagokienez ere. Azkenik, maskulinitate kaltegarrien eta genero-arau diskriminatzaileen efektuak lantzeko helburua jasotzen du, gizonek segurtasun- eta defentsa-politiketan defendatzaile eta alderdi interesdun gisa parte har dezaten laguntzea barne.

Bigarrenik, emakumeek modu esanguratsuan parte hartzea Irlandako Gobernuaren ordezkartzan bake- eta segurtasun-foro guztietan, baita erabakiak hartzeko eta lidergoa hartzeko maila gorenetan ere; emakumeen lidergoa eta partaidetza esanguratsua nabarmen hobetzea gatazken prebentzian, konponketan, bitartekaritzan, nazioarteko segurtasunean, bakearen eraikuntzan eta armagabetze-foroetan; eta, aldi berean, Irlandako emakumeek, gatazkek eragindakoek barne, erabakiak hartzeko orduan duten ahalduntzea eta parte-hartze esanguratsua modu frogagarrian hobetzea aipatzen da.

Hirugarrenik, babesari dagokionez, honako jomugak xedatzen dira: emakumeen babesia bermatzea gatazkek eragindako testuinguru ahuletan, baita emakumeen giza eskubideen urraketa guztien aurkako prebentzioa eta borroka ere, esplotazio sexuala, sexu-abusuak eta genero-indarkeria barne eta gatazkek eragindako emakume irlandarrei babesia, sorospena, errehabilitazioa eta errehabilitazioa bermatzeko mekanismo eta zerbitzu instituzionalak eraginkortasunez koordinatu eta indartzea.

Bukatzeko, sustapenari dagokionez, Irlandak EBS agendarekin lotuta dituen konpromisoak eta ekintzak, ikasgaien trukea barne, sustapenaren, komunikazioaren eta parte-hartzearen bidez sustatu eta erakusteko helburua markatzen du APNak; toki-, nazio-, eskualde- eta nazioarte-mailan.

SecurityWomen-ek dioenez, Irlandar Errepublikako APN interseksionala da, eta oso konprometituta dago nazioarteko garapen-ekimen zabalagoekin, hala nola Garapen Iraunkorreko Helburuekin. Onartzen du genero-ikuspegia txertatu behar dela bakea sendotzeko ekimen guztietan, eta, beraz, beste ahalegin batzuetara bideratzen du arreta gehiena, hala nola klima-ekintzara eta pobrezia desagerraraztera. Horren ondorioz, APN hori beste APN batzuk baino askoz zabalagoa eta sakonagoa da eta, era berean, bakearen finkapenaren ikuspegi kohesiboaren adierazgarria ere bada, Nazio Batuen beste helburu asko biltzen dituen, genero-dokumentu gisa isolatuta egon beharrean. Aurrerakoia da, halaber, beste erkidego batzuetako emakumeen ahultasun eta beharrian desberdinak hautematean. Gainera, interseksionalitatearekiko konpromisoa agertuz, komunitate nazional minoritarioetako emakumeen, LGBTIQI komunitateetako emakumeen eta gazteen parte-hartzea azpimarratzen du (SecurityWomen, 2019).

Azkenik, Irlandako APNk aitortzen du gizarte zibilak funtsezko eginkizuna duela eta bete behar duela bakea sendotzeko ekimenak lortzeko. Halaber, onartzen du emakumetaldeak, nahiz eta formalki sartuta ez egon, iraganean bakea finkatzeko prozesuen parte izan direla. Gizarte zibilak gogor parte hartu zuen APN hau idazten eta kontsultatzen, eta Irlandako gobernuak atzerriko gizarte zibilar laguntzen jarraitzen du, beste bake-prozesu batzuetan genero-ikuspegia txertatzea indartzeko.

3.2.3. Ipar Irlanda Akzio Plan Nazionaletan

Erresuma Batuko akzio planak ez dio aipamenik egiten Ipar Irlandako gatazkari eta Gatazka 1998an amaitu bazen ere, bake prozesuak martxan jarraitzen du eta oso gai delikatua izaten darrai. Hori dela eta, emakumeen erakundeek urteak daramatzate Erresuma Batuak Ipar Irlandako gatazkan Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenaren aplikatzea presionatzen.

Irlandar Errepublikako APNari dagokionez, bigarren honek bai egiten dio aipamena Ipar Irlandari eta onartzen du Ipar Irlandako bake-prozesuan emakumeen parte-hartzea funtsezkoa izan dela Ostiral Santuko Akordioa eta bake-prozesuaren ondorengo etapak lortzeko. Era berean, dio Ipar Irlandako gizarteko maila, komunitate eta jatorri guztietako

emakumeak aldaketa-eragileak izan zirela eta izaten jarraitzen dutela. Gainera, gehitzen du Irlandar Errepublikako Gobernuaren Belfasteko Idazkaritza (*The Irish Secretariat in Belfast*) funtsezkoa izango dela Irlandan EBS agenda hedatzen eta sustatzen laguntzeko. Idazkaritzak genero-berdintasuna lehentasun gisa hartuko du bere konpromisorik zabalenean, eta aldian-aldian emakumeari eta bakeari buruzko ekitaldi espezifikoak antolatuko ditu. Eta azkenik, EBS agenda eta genero-berdintasuna bultzatzen duten gizarte zibileko taldeak finantzatzeko direla ere gehitzen du; betiere, komunitate eta jatorri guztietako emakumeen inklusio eta parte-hartze esanguratsuak eta belaunaldien arteko esperientzia-trukearen garrantzia funtsezko printzipioa izanik.

Hala ere, Ipar Irlanda Erresuma Batuko APNtik kanpo geratu izanak, asko eragozten du gatazka-osteko egoeran dagoen eskualdean emakumeari, bakeari eta segurtasunari buruzko politika globala eskaintzea. Izan ere, Erresuma Batuko gobernuak ez ditu jarraitu CEDAWren 2008ko Batzordek Estatu honi egindako gomendioak, hau da, "Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak Ipar Irlandako emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruz emandako 1325 Ebazpena erabat aplikatzea", ezta 2013 eta 2019. urteetan eginikoak ere. Zeinetan Erresuma Batuak Ipar Irlandan 1325 Ebazpena aplikatzeko neurririk hartu ez zuelako kezka erakusten zuen Komiteak, argudiatuz talde paramilitarrek emakumeak beldurtzen jarraitzen zutela, eta ez zeudela behar bezala ordezkatuta gatazkaren ondorengo berreraikitze-prozesuetan eta bakea finkatzeko prozesuetan.

CEDAWren 30. Gomendio Orokorrari dagokionez, Komiteak gomendatzen du estatukideak neurri zehatzak har ditzala gatazkaren ondorengo berreraikitze-prozesuetan eta Ipar Irlandan bakea finkatzeko prozesuetan emakumeen benetako parte-hartzea bermatzeko, Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenarekin bat etorritik, besteak beste: parte-hartzearen oztopoak gainditu eta emakumearen parte-hartzea bermatzea Ipar Irlandako lege-proiektuan (*Stormont Houseko Akordioa*) aurreikusitako trantsizioko justizia-mekanismoen testuinguruan.

Alabaina, eskaera eta gomendio horiek hor egon arren, Erresuma Batuak jarraitzen du egun arte Ipar Irlandako bake-prozesua 1325aren Akzio Plan Nazionaletan txertatu gabe.

3.3. Ipar Irlandan 1325 Ebazpena aplikatzearen garrantzia

Arestian azaldu legez, Erresuma Batuak 1325 eta ondoko ebazpenak nazioartean aplikatzeko konpromisoa hartuagatik, ez du Akzio Plan Nazionaletan Ebazpen horiek Ipar Irlandan aplikatzeko ezer egin. Irlandar Errepublikak bestalde, bai txertatzen du Ipar Irlanda bere Akzio Plan Nazionaletan.

Esan beharra dago, 1325 Ebazpena Ipar Irlandako bake-negoiazioak amaitu ondoren onartu zela, bake negoziazio horiek 1998an amaitu baitziren, Ostiral Santuko Akordioarekin. Argi dago, beraz, Ebazpenak ez zuela akordioan tokirik izan, baina, etorkizunean aplikatuz, badu potentziala eskualdean genero-ikuspegia duen bakearen eraikuntzan eragiteko (Pierson, 2019), besteak beste, geroago etorri diren gatazketan interesatutako Estatuaren Akzio Plan Nazionaletan aurreikusteko, lehenik eta behin, eta aplikatzeko, ondoren.

Ipar Irlandaren testuinguruan, Akordioaren osteko egoeran emakumeen bazterketa ez da oharkabea pasa. Nahiz eta emakumeek politika formalaren ordezkartze aurrerapen batzuk lortu dituzten, neurri handi batean komunitatearen garapen eta politikatik kanpo daude, batez ere Akordioaren arabera preso politikoak askatu ondoren (Pierson eta Radford, 2016). Emakumeen Erakundeek, finantzazioa izaten jarraitzeko, zerbitzuen prestazioan jarri dute arreta, eta, neurri batean, presio politikoa egiteko ahala galdu dute (Cockburn, 2013) eta zenbait emakume talde – gazteak, borrokalari loialista ohiak eta LGBTQI komunitateko emakumeak – guztiz baztertua geratu dira (Ashe, 2018).

Ordezkaritza formalaz gain, genero-politikako gaiak periferikoak eta gutxi garatuak izaten jarraitzen dute. Adibidez, genero-indarkeriak delituen zati handi baten kausa izaten jarraitzen du; izan ere, sexu-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren salaketa-indizeak areagotu egin dira Akordioaz geroztik, eta, bereziki, sexu-indarkeria historikoa agerian geratu da. Gainera, jakina da Ipar Irlanda herrialde benetan kontserbadorea dena, eta Erresuma Batuko abortuaren inguruko legea, “*The British Abortion Act*”, 1967koa, ez da orain gutxira arte – 2019ko urrian – Ipar Irlandara hedatu. Beraz, Ipar Irlandan abortua ilegala izan da ordura arte, ondorioz, emakumeek abortatzeko Britainia Handira bidaiatzea edota online pilula abortiboak erostea zen; hori bai, jazarri eta zigortuak izateko arriskuarekin (Casero, 2019).

Horregatik guztiagatik, genero-desberdintasunaren testuinguru horretan, 1325 Ebazpenak potentzial handia izan dezake oraindik Ipar Irlandan, aplikatzen bada, bakearen

eraikuntzatik emakumeen baztertzeari heltzeko, emakumeen ahotsak eta esperientziak entzun daitezten ahalbidetzeko eta ordezkari politiko bat bermatzeko.

Garrantzitsua da mahai gainean jartzea, Ostiral Santuko Akordioak ez duela identitate alternatiboen garrantzia onartzen identitate nazional-erlijiosotik kanpo, eta beraz, gatazkaren osteko bakearen eraikuntzaren barruan genero-desberdintasuna lantzeko mekanismoak ez dira oso sistematikoak izan. Aktibistek uste dute EBS agendaren funtzioetako bat izan daitekeela komunitateen barruan elkarrizketak hastea emakumeek bakearen finkapenean duten zereginari buruz, eta esparru bat eta hiztegi bat ematea emakumeak gehiago gizarteratzearen alde argudiatzeko (Pierson, 2019).

Oro har, ez dira onartzen genero-desberdintasunaren eta gatazken arteko lotura kontzeptualak eta hori gatazka ondorengo egoerara ere hedatzen da, non emakumeentzako gaiak eta politikak gatazka nazional-erlijiosoetatik bereizitza jotzen baitira. Gainera, martxan ipinitako politikek emakumeengan duten eragin diferentziala oharkabean pasa dezakete, genero neutroaren ikuspegiarekin funtzionatuz gero edota emakumeek bizi dituzten identitateen izaera multidimentsionala aintzat ez hartuz gero. (Rooney, 2007).

Bakea sendotzeko emakumeen ahotsak duen garrantzia nabarmentzen duten estrategiek aitortu behar dute, halaber, gatazkan dauden gizarteetan genero-desberdintasunaren eta emakumeen marjinazioaren arteko intersektzioa. Hala, 1325 Ebazpenak nazioartean adostutako dokumentu bat ematen du, ikuspegi horren garrantzia eta eskualdeetako testuinguruetan duen aplikazioa nabarmentzen dituen, emakumeen ikusgarritasuna bermatzeko aplikazio-mekanismo gisa balio dezakeena. Hala ere, nazioarteko dokumentuok generoaren eta emakumearen bertsio zehatz eta murriz bat eraikitzen dute eta beharrezkoa da emakumeen esperientzien eta identitateen aniztasuna onartzea (Pierson, 2019).

Tamalez, berdintasunaren ikuspegi intersektzionalak gero eta zailagoak dira bi identitate nazional-erlijioso baina onartzen ez dituen gizarte batean; hala, besteak beste, klasea, generoa, sexualitatea eta arraza baztertuz. Nahiz eta izate horiek guztiak egunerokoan elkargurutzatu egiten diren eta ondorioz, desberdintasunak areagotu.

Horregatik, 1325 Ebazpena aplikatu eta testuinguru kontserbadore eta erlijioso honek baztertutako emakumeak sartu eta horiei ahotsa ematea garrantzitsua izanagatik, 1325

Ebazpenaren irakurketa sakona egin behar dela deritzot, ikuspegi feminista intersektional batetik. Ikuspegi horretatik baino ezingo baitira komunitate bateko gorputz guztien nortasuna eta segurtasuna (bakearen eraikuntzarako garrantzitsuak diren gaiak) ezagutu eta ulertu. Ondorioz, modu horretan bakarrik izan daiteke “Emakumeak eta Bakea eta Segurtasunaren” agenda benetan eraldatzailea.

Ipar Irlanda Erresuma Batuko APNtik kanpo utzi izanak kezka sortu du gizarte zibilean eta hainbat eragilek, “*Northern Ireland Women’s European Platform*” (NIWEP)-ek bereziki, presioa eta lobby lanak egin dituzten 1325 Ebazpena Ipar Irlandan aplikatu dadin. NIWEP Ipar Irlandako emakume talde asko ordezkatzeko dituen erakundea da, 2000. urteaz geroztik 1325 Ebazpenaren inguruko sentsibilizazioaz arduratzen dena; presio jarduerak, formakuntza eta biltzarrak antolatzeaz besteak beste.

Presio horren eraginez, 2010ean, Ipar Irlandako Asanbladan (*Northern Ireland Assembly*), Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenari buruzko alderdi politiko guztien talde bat sortu zen. Taldeak ikerkuntza bat abiatu zuen bake akordioaz geroztik Ipar Irlandako emakumeen rola ikertzeko bizitza politikoan eta publikoan eta gerora begira gomendioak eman ahal izateko, gizarte baketsu baten eraikuntzan emakume eta gizonek rol berak izateko. Taldeak emakume taldeen eta erakundeen testigantzak jasozituen bai idatziz eta baita ahoz ere honako gai hauen inguruan: genero berdintasuna, emakumeak eta hauteskunde-politika, emakumeek tokiko erakundeei egiten dieten ekarpena, emakumeak eta erabakiak hartzea, emakumeen aurkako indarkeria eta emakumeak gatazkaren biktima gisa. Ikerketa horrek argi utzi zuen 1325 Ebazpena Ipar Irlandan aplikatzeko beharra.

Ikerketa horren harira, NIWEP-ek honako gomendio hauek eman zituen:

- Ipar Irlandako Gobernuako funtzionarioek 1325 Ebazpenari, bere eraginari eta aplikazioari buruzko prestakuntza jaso beharko lukete
- Gatazkaren ondorengo aldian sortutako egitura eta erakunde guztiak genero-gaietara egokituta egon beharko liriteke, eta gatazkak emakumeengan eta haurren duen eraginaz jabetuta egon.
- Administrazio publikoan genero-gaiak berrikusteko sortutako egitura berriek Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpeneko, CEDAWren eta Beijinggo Ekintza Plataformaren gomendioak islatu beharko lituzkete.

- Ipar Irlandako funtzionarioek gehiago parte hartu beharko lukete negoziazio diplomatikoetan, baita behatzaile gisa ere, Erresuma Batuko gobernuak bere gain hartutako nazioarteko konpromisoak ulertzeko;
- Ipar Irlandako Gobernuaren Genero Unitateak baliabide gehiago jaso beharko lituzke jarraipena eta etengabeko prestakuntza bermatzeko Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena, CEDAW bezalako gaietan.
- Nazio Batuek 1325 Ebazpena indartu beharko lukete, hura aplikatzeko aurrekontu eta jarraipen- eta ebaluazio-organo eraginkor batekin. Gobernuak aldian-aldian aztertu beharko lirateke haren aplikazioari buruz, CEDAWen kasuan bezala, eta neurriak hartu Ebazpena aplikatzen ez duten herrialdeen aurka (NIWEP, 2010).

Ipar Irlandako emakumeen gizarte zibilak emakumeen ordezkartzaren alde egiten jarraitzen du bakearen eraikuntzan, eta adierazten du tentsio komunitarioak eta bizitza publikokoak berpiztu egin direla eta krisi ekonomikoak emakumeengan eragin nabaria izan duela. Gai horietan guztietan emakumeen ahotsak entzun behar direla dio, eta gizarte baketsu inklusiboaren eraikuntzan 1325 Ebazpena txertatze inoiz baino garrantzitsuagoa dela.

4. 1325 EBAZPENAREN APLIKAZIO EREMUA ZABALTZEA

Ipar Irlandako gatazkaren kasuan, non Europar mendebaldeko estatuak esku hartu ez zuten, 1325 Ebazpena aplikatu behar izateak – hala dio CEDAWk, besteak beste – aukera ematen du ebazpen horren eta, oro har EBS agendaren, aplikazio eremua zabaltzeko. Izan ere, gatazka horrek ez du Nazio Batuen “gatazka” hitzaren iruditegi kolektiboan leku hartzen; hau da, Ekialde Hurbileko, Afrikako edota Latinoamerikako (Hegoalde globala) estatuen arteko edota guda zibil baten itxura.

Horrek halabeharrez “gatazka” hitzaren esanahia aztertzeraz garrantzitsua, eta baita “segurtasun” eta “bakea”-rena ere. Ikuspegi tradizional batetik, segurtasuna Estatuaren kontrako erasoenganako babesean datza, eta horrekin lotuta, bakea gerrarik ezari deritza, hau da, bortxakeria zuzen eta agerikoak ez egoteari.

Ikuspegi feminista batetik baina, definizio horiek ez dute funtsezko aldagai oro kontuan hartzen: alde batetik, segurtasunarekiko mehatxu nagusietako bat oinarrizko beharrianak asetuta ez egotea delako eta, beste alde batetik, gatazken adierazpen bortitz eta agerikoak soilik aztertzeak eta jorratzeak beste indarkeria-mota batzuen existentzia baztertzea dakarrelako. Emakumeek zehazki, ez diote soilik egiturazko indarkeriari aurre egin behar, ekonomiari, politikari eta gizarteari dagokionez (pobreziaren feminizazioa, lan-edota sexu-esplotazioa, azpiordezkaritza politikoa, eta abar) baita zuzeneko indarkeria-maila handiei ere; hau da, kontuan hartzen ez direnak "eremu pribatua" deiturikoan jasaten direlako. Indarkeria guztiak bilduko dituen definizioaren bilaketan, feminismoak "publiko-pribatu" eta "gerra-bakea" dikotomietatik alde egiten du. Izan ere, adierazten du arlo publikoa erregulatzen duten hierarkia sozial berberak erregulatzen dutela arlo pribatua ere eta bakea ez dela gerrarik gabeko egoera gisa ulertu behar, indarkeria guztietatik aske bizi den testuinguru gisa baizik (Mendia eta Saillard, 2013).

Jule Goikoetxea soziologo feministak dioenez, "gizarte patriarkalean gatazka politikoa gizonek elkar akabatzen dutenean gertatzen da eta bakea edo normalizazioa gizonek elkar akabatzeari uzten diotenean". Izan ere, patriarkatuan emakumeen kontrako indarkeria da araua, eta normalizazioak zera esan nahi du: emakumearen mendekotasuna. Gizarte baketsu eta normal bat da gizarte bat non emakumezkoak otzanak eta esanekoak diren eta gizonek gobernatzen duten. Sistema patriarkalean emakumeek eremu pribatua taxutzea da norma, "emakume normala", objektua. Gorputza naturala, lizuna eta femeninoa da. Gerlariaren atsedena, ama, emaztea edo puta. Eguneroko praktikak patriarkalak diren heinean, normalizazioa eta bakea emakumearentzat, eguneroko gatazka eta indarkeria jarraituan oinarritzen dira (Goikoetxea, 2016).

Gatazka kanpoko mehatxutzat hartzen bada, hau da, norbere lurraldetik kanpoko mehatxutzat, segurtasunaren kontzeptuak Ipar-Hegoaldeko botere-dinamikak betiketozen ditu; estatuek maiz erabiltzen baitute zuri salbatzaileen narratiba. Agenda ezartzeko tresna nagusietako (Akzio Plan Nazionalak) arraza-hierarkia globalen inguruko azterketa batean, Toni Haastrupek eta Jamie J. Hagenek ezarri zuten "Emakume mota jakin batzuek" soilik behar dituztela "bake-operazioetako misioak" eta emakume horien egoitza "Hegoalde Globalean" dagoela, halabeharrez. Horrek esan nahi du segurtasunik gabeko egoeran dauden emakumeak, herrialde horien arabera, ez daudela beren mugen barruan. Hala ere, nahikoa da tokiko ekintzaileak entzutea premisa hori zalantzan jartzeko (Velasco, 2021an aipatua).

Segurtasunaren kontzeptu tradizionalak duen beste muga bat da (in)segurtasunak ez duela gauza bera esan nahi "hegoalde globalean" eta "iparralde globalean". Latinoamerikaren adibidea sarri aipatzen da kasu honetan; izan ere, lurraldeak, beste eskualde batzuekin alderatuta, nahiko gatazka armatu gutxi izan ditu estatuen artean XIX. mendearen amaieratik baina munduko indarkeria tasarik altuenak ditu. Are gehiago, indarkeria hori egiturazkoa da, generoa du eta emakumeek modu partikularrean pairatzen dute. Adibidez, hamaika emakume hiltzen dituzte egunero Mexikon. Mexikarren segurtasunaren aurkako mehatxu mota horiek ez dute ihes egiten genero-ikuspegidun giza segurtasunaren testuingurutik, baina bai Segurtasun Kontseiluaren ikuspegi nagusitik: haien heriotzak ez dira "nazioarteko bake eta segurtasunaren" aurkako mehatxua. Baina, ba al dago "bakeaz" hitz egiterik hain hilketa-tasa handiak eta inpunitate handia dituen herrialde batean? Claudia Cardek dioen bezala, bere hiritarrei baimenik gabe (edozein delarik ere bere izaera) beste batzuk hiltzeko aukera ematen dien estatuak, ezin du horietako inorentzat oinarrizko segurtasunik eman (*Ibidem*).

Segurtasuna eta bakea definitzean hortaz, ezinbestekoa da fokua estatuengandik kendu eta pertsonengan jartzea, bereziki pertsona zaugarrienengan, horiei eragiten baitiete batez ere indarkeria zuzenak, egiturazkoak eta sinbolikoak.

Behin bakea eta segurtasuna definituta, argi dago Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna agendak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak, nazioarteko bakea mantentzeko arduradun nagusia denak, pauso bat harago eman behar dutela benetako bakearen eraikuntzarako. Horretarako, batetik, gizaki guztion oinarrizko betebeharrak ase behar dira eta bestetik, jendartean ematen diren indarkeria mota guztiak (ez orain arte Segurtasun Kontseiluak bakearen aurkako mehatxutzat hartu dituenak soilik) aztertu eta horiek prebenitu eta akabatzeari ekin.

Honekin lotuta, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenak Emakumeak eta Bakea eta Segurtasunari dagokionean jasotzen dituen jarduteko lau arloak (Emakumeen parte-hartzea handitzea bake-prozesuetan eta erabakiak hartzerakoan, bakea genero-ikuspegitik mantentzeko entrenamendua, gatazka armatuetan eta gatazka osteko egoeretan emakumeak babestea eta datu-bilketaren eta informazio-sistemen korrante nagusian generoa zeharka sartzeari) gidalerro egokiak izan daitezke baldin eta politikaren arlo guztietara zabaltzen badira; bakeak eta segurtasunak, efektiboak izango badira, esparru publiko zein pribatu guztietan behar dutelako sostengua.

Izan ere, gidalerro horiek hartuta, ikuspegi tradizionaletik segurtasuna mantentzeko erabili ohi diren estrategia militaristak alde batera uzten dira. Ikuskera feminista batetik begiratuta, militarismoa baita segurtasunerako mehatxurik eta handiena, eta batez ere emakumeentzat, honako arrazoi hauek direla medio: a) balore patriarkalen adierazpen maximoa da, b) militarismoaren eta sexismoaren arteko lotura handia da, c) gastu sozialetatik baliabideak desbideratzea dakar eta d) emakumeen aurkako indarkeriaren logika indartzen du, bai makro mailan, bai mikro mailan (Mendia eta Saillard, 2013).

5. ONDORIOAK

1325 Ebazpenak, eta haren ondoren onartu direnek, bide bat zabaldu dute hainbeste urtetan emakume feministek bakearekin eta segurtasunarekin lotutako aldarriei euskarri juridiko bat emateko. Izan ere, bakegintza prozesuetan genero-ikuspegia txertatu dute eta baita prozesu horietan emakumeen parte-hartzearen garrantzia azpimarratu ere.

Horiekin batera, Emakumearen Kontrako Edonolako Bereizkeria Deuseztatzeari buruzko Hitzarmena ere aztertzen saiatu naiz lan honen bidez, eta EBS agendak eta biek elkar indartzen dutela argudiatu. Izan ere, batek irismenik ez duen aplikazio eremua hartzen du bestek. Halaber, CEDAWren 30. Gomendio Orokorra ere azertu dut, emakumeei buruzkoa gatazka egoeretan eta gatazka-ondoko egoeretan. GO30ak, EBSren ebazpenek ez bezala, xedapen zehatzak ematen dizkie estatuei; eta hori da CEDAW eta EBS agenda osagarri diren adibide argi bat.

Horiek guztiak, inolako zalantzarik gabe, aurrerapauso handia izan dira, baina, hala ere, ez Ebazpena ezta EBS agenda ere ez dira kritiketatik salbu geratu. Kritikak egin zaizkie alde batetik, emakume eta gizonen arteko dualismo bat sortzen dutelako (emakumeak baketsuak eta babes eskean eta gizonak biolentoak eta babes emaileak) eta bi talde horiek talde homogeen bezala hartzen dituztelako, emakume eta gizon bakoitzaren esperientzia kontutan hartu gabe. Bestalde, kritikari askok adierazi dute agendak emakumeak bake prozesuetan sartu arren, ez duela egiturazko aldaketarik bultzatzen eta bakea eta segurtasuna egitura militarren barruan ematen dituela. Gainera, ebazpen kolonialistatza hartu du zenbaitek (“gizon zuriak emakume beltzaranak salbatzen”) eta herrialde askok norbere lurraldetik kanpo baino aplikatzen ez dutela azpimarratu.

Azken kritika horren adibide argia da Ipar Irlandaren kasua, Erresuma Batuak uko egiten baitio 1325 Ebazpena lurraldean aplikatzeari. Erresuma Batuak lau Akzio Plan Nazional garatu ditu 1325 Ebazpenari dagokionez, baina Ebazpena bere lurraldeaz kanpoko gatazketan aplikatzea baino ez dute aurreikusten. CEDAWk hainbatetan aurkeztu dio Ipar Irlanda bere APNan ez jaso izanaren kezka baina Erresuma Batuak gatazka onartu gabe dirau. Irlandar Errepublikak bestalde, bai egiten dio aipua Ipar Irlandari bere APNan eta gai horretan Erresuma Batuko eta Irlandar Errepublikako erakundeen kooperazioa bultzatuko duela adierazten du.

Hala ere, Erresuma Batuaren APNan Ipar Irlanda jaso ez arren, gizarte zibilaren presioak eraginda, Ipar Irlandako Emakumeen Europako Plataformarena (NIWEP) bereziki, eman dira pausuak 1325 Ebazpena nolabait aplikatzeko.

Horrek Ebazpenaren aplikazio eremua zabaltzea ekar dezakeela plazaratu da lan honen bidez. Izan ere, Ipar Irlandako gatazka Segurtasun Kontseiluaren “gatazka” hitzaren iruditegitik kanpo geratzen da. Horrek ezinbestean garamatza “gatazka”, “bakea” eta “segurtasuna” orain arteko ikuspegi tradizionalak ez bezala ulertzera. Izan ere, bakeak eta segurtasunak gudarik ezarekin baino, pertsona orok premiazko beharrianak asetuta izatearekin du zerikusia eta edozein motatako indarkeriarik ez egotearekin.

Hala, denon bakea eraikitzeke eta garapen iraunkorra lortzeko, ezinbesteko baldintza da, besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Ondorioz, Ebazpenaren gidalerro eta helburuak politikaren esparru guztietara zabalduz gero, 1325 Ebazpena pertsona ororen (eta ez soilik estatuen) bakea eta segurtasuna bultzatzeko tresna juridiko baliotsua izan daitekeela deritzot.

6. ERREFERENTZIAK

6.1. Bibliografia

AMT, A. (2019). Resolution 2467: ending sexual violence in conflicts. German Federal Foreign Office. <https://www.auswaertiges-amt.de/en/aussenpolitik/internationale-organisationen/vereintenationen/resolution-2467/2213178>

- ARETXAGA, Begoña. (1997). *Shattering silence : women, nationalism, and political subjectivity in Northern Ireland*. Princeton University Press.
- ASHE, Fidelma. (2006). Gendering the Holy Cross School Dispute: Women and Nationalism in Northern Ireland. *Political Studies*, 54, 147–164. <https://journals-sagepub-com.ehu.idm.oclc.org/doi/pdf/10.1111/j.1467-9248.2006.00570.x>
- ASHE, Fidelma. (2006). Gendering the Holy Cross School Dispute: Women and Nationalism in Northern Ireland. *Political Studies*, 54, 147–164. <https://journals-sagepub-com.ehu.idm.oclc.org/doi/pdf/10.1111/j.1467-9248.2006.00570.x>
- ASHE, Fidelma. (2009). From Paramilitaries to Peacemakers: The Gender Dynamics of Community-Based Restorative Justice in Northern Ireland. *The British Journal of Politics and International Relations*, 11, 298–314. <https://journals-sagepub-com.ehu.idm.oclc.org/doi/pdf/10.1111/j.1467-856X.2008.00345.x>
- BASU, Soumita, KIRBY, Paul, eta SHEPHERD, Laura. (2020). *New Directions in Women, Peace, and Security*. Amsterdam University Press. https://library.oapen.org/bitstream/handle/20.500.12657/42718/9781529207774_1_web.pdf;jsessionid=A3CD2DC8C7204F4D78D45E1B7D67F829?sequence=1
- BINDER, Christina, LUKAS, Karin eta SCHWEIGER, Romana. (2008). Empty Words or Real Achievement? The Impact of Security Council Resolution 1325 on Women in Armed Conflicts. *Radical History Review*, 2008(101), 22–41. <http://web.a.ebscohost.com.ehu.idm.oclc.org/ehost/pdfviewer/pdfviewer?vid=1&sid=ebe86670-de7a-43f1-85aa-67540831d9e5%40sdc-v-sessmgr02>
- BRIDGES, Donna eta HORSFALL, Debbie. (2009). Increasing Operational Effectiveness in UN Peacekeeping. *Armed Forces & Society*, 36(1), 120–130. <https://journals-sagepub.com.ehu.idm.oclc.org/doi/pdf/10.1177/0095327X08327818>
- CASERO, Cristina. (2019). Irlanda del Norte, donde la legislación del aborto es más terrible que en Alabama. *Diario Público*-n argitaratua 2019ko ekainaren 17an. <https://www.publico.es/internacional/aborto-irlanda-norte-irlanda-norte-legislacion-aborto-terrible-alabama.html>

- COHN, Carol. (2004). Feminist Peacemaking. *The Women's Review of Books*, XXI(5), 8–9. https://genderandsecurity.org/sites/default/files/Cohn_Feminist_Peacemaking.pdf
- EPLO. (2010). UNSCER 1325 in Europe. 21 case studies of implementation. *European Peacebuilding Liaison Office* 49-52. http://eplo.org/wp-content/uploads/2017/04/EPLO_GPS_WG_Case_Studies_UNSCR_1325_in_Europe.pdf
- GUERRINA, Roberta eta WRIGHT, Katherine A.M. (2016). Gendering normative power Europe: lessons of the Women, Peace and Security agenda. *International Affairs*, 92(2), 293-312. <https://academic-oupcom.ehu.idm.oclc.org/ia/article/92/2/293/2417221>
- HAASTRUP, Toni eta HAGEN, Jamie J. (2020). Race, Justice and New Possibilities: 20 Years of the Women, Peace and Security agenda. *WPS Forum*. Published. <https://blogs.lse.ac.uk/wps/2020/07/28/race-justice-new-possibilities-20-years-of-the-women-peace-and-security-agenda/>
- HAGEN, Jamie J. (2016) Queering women, peace and security. *International Affairs* 92(2): 313–332. <https://academic-oup-com.ehu.idm.oclc.org/ia/article/92/2/313/2417217>
- HINDS, Bronagh eta DONNELLY, Debbie. (2014,). *Women, Peace and Security: Women's Rights and Gender Equality*. https://wrda.net/wp-content/uploads/2017/05/Toolkit_Booklet.pdf
- JOACHIM, Jutta eta SCHNEIKER, Andrea. (2012). Changing discourses, changing practices? Gender mainstreaming and security. *Comparative European Politics*, 10(5), 528–563. <https://www-proquestcom.ehu.idm.oclc.org/docview/1136613797/fulltextPDF/4660829B01804680PQ/1?accountid=17248>
- MAGALLÓN, Carmen. (2008). *Mujeres en pie de paz*. Siglo. Torrejón de Ardoz.
- MAGALLÓN, Carmen. (2008–2009). Mujer, paz y seguridad: un balance de la Resolución 1325. *Anuario CEIPAZ*, 2, 69–88. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2787556>

- MENDIA, Irantzu eta GUZMAN, Gloria. (2019). *Genero-ikuspegia gatazketan: bakegintzaren aldeko eta zigorgabetasunaren aurkako ekintza feministarekin bat egiten duen nazioarteko lankidetzarantz*. Hegoa. http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/404/GENERO-IKUSPEGIA_GATAZKETAN..MENDIA_GUZMAN_eusk.pdf?1557397795
- MISKIMMON, Irene eta McCAUSLAND, Fiona (NIWEP). (2016). Northern Ireland. European Peacebuilding Liaison Office. http://eplo.org/wp-content/uploads/2016/11/Northern-Ireland_UNSCR1325_NAP_Contribution.pdf
- MUJICA CHAO, Itziar. (2021). Veinte años de la agenda internacional sobre Mujeres, Paz y Seguridad (MPS). *Revista CIDOB d'Afers Internacionals*, 127, 15–38. <https://www-proquest-com.ehu.idm.oclc.org/A1AE7F7B3BB54298PQ?accountid=17248>
- NÍ AOLÁIN, Fionnuala. (2015). -Feminism facing international law. *European Journal of Women's Studies*, 22(4), 457–462. <https://journals.sagepub.com/doi/abs/10.1177/1350506815603153>
- ORFORD, Anne. (2002). Feminism, Imperialism and the Mission of International Law. *Nordic Journal of International Law* 71: 275–296.
- OTTO, Diane. (2006). A Sign of "Weakness"? Disrupting Gender Certainties in the Implementation of Security Council Resolution 1325. *Michigan Journal of Gender & Law*, 13(1). <https://repository.law.umich.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1085&context=mjgl>
- PAFFENHOLZ, Thania (2015). Beyond the normative: Can women's inclusion really make for better peace processes? *Policy Brief, Geneva: The Centre on Conflict, Development and Peacebuilding*. <http://www.peacewomen.org/node/92491>
- PEACEWOMEN. (2015). Northern Ireland: UNSCR 1325 in Northern Ireland: Opportunities, Challenges and Complexities. *PeaceWomen*. <https://www.peacewomen.org/content/northern-ireland-unscr-1325-northern-ireland-opportunities-challenges-and-complexities-0>

- PEACEWOMEN. (2019). National Action Plan: Ireland. *PeaceWomen*.
<https://www.peacewomen.org/nap-ireland>
- PEACEWOMEN. (2019). National Action Plan: United Kingdom. *PeaceWomen*.
<https://www.peacewomen.org/nap-uk>
- PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos eta MENDIA, Irantzu. (2013). *Seguridad Humana. Aportes críticos al debate teórico y político*. Hegoa. Tecnos. Madrid.
- PIERSON, Claire eta RADFORD, Katy. (2016). *Peacebuilding in Northern Ireland and the Women's Sector*. <https://www.community-relations.org.uk/sites/crc/files/media-files/9999%20ICR%20Peacebuilding.pdf>
- PIERSON, Claire. (2019). Gendering peace in Northern Ireland: The role of United Nations Security Council Resolution 1325 on women, peace and security. *Capital & Class*, 43(1). <https://journals-sagepub-com.ehu.idm.oclc.org/doi/pdf/10.1177/0309816818818087>
- PRATT, Nicola. (2013). Iraqi Women and UNSCR 1325: An Interview with Sundus Abbas, Director of the Iraqi Women's Leadership Institute, Baghdad. *International Feminist Journal of Politics* 13 (4): 612–615.
- PRATT, Nicola. (2013). Reconceptualizing Gender, Reinscribing Racial–Sexual Boundaries in International Security: The Case of UN Security Council Resolution 1325 on “Women, Peace and Security”. *International Studies Quarterly*, 57(4), 772–783. <https://doi.org/10.1111/isqu.12032>
- RESDAL. (2015). *La RCS 1325 y más allá: la evolución del marco sobre mujer, paz y seguridad de las Naciones Unidas*. https://www.resdal.org/wps_sp/tools_01.html
- RODRIGUEZ, Zuriñe eta ETXEBARRIETA, Oihana. (2016). *Borroka armatua eta kartzelak*. LISIPE. Susa. Zarautz.
- ROONEY, Eilish. (2007). -Engendering transitional justice: questions of absence and silence. *International Journal of Law in Contextt*, 3, 173–187. <https://search-proquest-com.ehu.idm.oclc.org/docview/209809960/fulltextPDF/1B3C5FFB8A004C75PQ/1?accountid=17248>

- SAKSENA, Anu. (2007). CEDAW Mandate for Substantive Equality. *Indian Journal of Gender Studies*, 14(3), 481–498. <https://doi.org/10.1177/097152150701400306>
- SEPULVEDA-SOTO, Daniela eta RIVAS-PARDO, Pablo. (2019). La Resolución 1325: Mujeres, Paz y Seguridad en las Operaciones de Mantenimiento de la Paz. *Entramado*, 15(2), 66–77. <https://revistas.unilibre.edu.co/index.php/entramado/article/view/5482/4943>
- SHEPHERD, Laura J. (2016). -Making war safe for women? National Action Plans and the militarisation of the women, peace and security agenda. *International Political Science Review*, 37, 324–335. <https://journals-sagepub-com.ehu.idm.oclc.org/doi/pdf/10.1177/0192512116629820>
- SHEPHERD, Laura J. (2020). The paradox of prevention in the Women, Peace and Security agenda. *European Journal of International Security*, 5(3), 315–331. <https://www-cambridge-org.ehu.idm.oclc.org/core/journals/european-journal-of-international-security/article/paradox-of-prevention-in-the-women-peace-and-security-agenda/5D47238B224CFD8BFEE1CEDD4A1E76CF>
- SIOBERG, Laura. (2009). -From where we stand: war, women’s activism and feminist analysis. *Feminist Review*, 92, 180–182. <https://journals-sagepub-com.ehu.idm.oclc.org/doi/pdf/10.1057/fr.2009.14>
- SPIVAK, Gayatri. (1988) *Can the Subaltern Speak?* Macmillan. London.
- SWAINE, Aisling. (2009). Assessing the potential of national action plans to advance implementation of United Nations Security Council Resolution 1325. *Yearbook of International Humanitarian Law*, 12, 403–433. https://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract_id=1577567
- TALMON, Stefan. (2005). The Security Council as World Legislature. *American Journal of International Law*, 99(1), 175–193. <https://www-proquestcom.ehu.idm.oclc.org/docview/201151228/fulltextPDF/D4DB671DD9EF41A7PQ/1?accountid=17248>

- THOMSON, Jennifer. (2019). Feminising politics, politicising feminism? Women in post-conflict Northern Irish politics. *British Politics*, 14(2), 181–197. <https://www-proquestcom.ehu.idm.oclc.org/docview/2230471371?accountid=17248>
- TRYGGESTAD, Torunn L. (2009). Trick or Treat? The UN and Implementation of Security Council Resolution 1325 on Women, Peace, and Security. *Global Governance*, 15, 539–557. <https://www-proquest-com.ehu.idm.oclc.org/docview/213731821?accountid=17248>
- VELASCO, Ana. (2021). La 1325 y la noción de seguridad: disyuntivas y trascendencia. *Por la paz*, 39. http://www.icipperlapau.cat/numero39/articles_centrales/article_central_3/
- VELÁZQUEZ BORGES, Sudis María (2011). Las Reservas a la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer. *Revista De La Facultad De Derecho Y Ciencias Políticas*, 41(115), 427–449. <https://www-proquest-com.ehu.idm.oclc.org/docview/1034969538/fulltextPDF/89B5564B1D074D6FPQ/1?accountid=17248>
- VILLELLAS ARIÑO, María-ri elkarrizketa (2020). Seguridad humana y feminismo: El Cuestionamiento principal que desde el feminismo se ha hecho a la seguridad humana ha sido el que se mirare al ser humano como un ser universal, desde una mirada androcéntrica. *Relaciones Internacionales*, 43, 209 - 213. <https://www-proquest-com.ehu.idm.oclc.org/docview/2424657133?accountid=17248>
- WILPF International. (2013). *CEDAW Discusses the Implementation of UNSCR 1325 in the United Kingdom*. WILPF. <https://www.wilpf.org/cedaw-discusses-the-implementation-of-unscr-1325-in-the-united-kingdom/>
- ZIRION, Iker. (2012). La Convención para la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer (CEDAW). Su aplicación en la República Democrática del Congo. *AAVV, Ecos de Serpiente. Experiencias de ida y vuelta en el Consejo de Derechos Humanos*, Unesco-Etxea, Bilbao, 78-101.

6.3. Testu juridikoak

1325(2000) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 4213. sesioan onartua, 2000ko urriaren 31n.

1820(2008) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 5916. sesioan onartua, 2008ko ekainaren 19an.

1888(2009) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 6195. sesioan onartua, 2009ko irailaren 30ean.

1889(2009) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 6196. sesioan onartua, 2009ko urriaren 5ean.

1960(2010) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 6453. sesioan onartua, 2010eko abenduaren 16an.

2106(2013) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 6984. sesioan onartua, 2013ko ekainaren 24an.

2122(2013) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 7044. sesioan onartua, 2013ko urriaren 18an.

2242(2015) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 7533. sesioan onartua, 2015ko urriaren 13an.

2467(2019) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 8514. sesioan onartua, 2019ko apirilaren 23an.

2493(2019) Ebazpena, Segurtasun Kontseiluaren 8649. sesioan onartua, 2019ko urriaren 29an.

Emakumearen Kontrako Edonolako Bereizkeria Deuseztatzeari buruzko Hitzarmena (CEDAW), Batzar Nagusiak 1979ko abenduaren 18ko 34/180 ebazpenean onartua eta sinatzeko, berresteko edo atxikitzeko irekia.
https://www.ohchr.org/Documents/ProfessionalInterest/cedaw_SP.pdf

CEDAW (2013). 30. Gomendio Orokorra, emakumeei buruzkoa gatazken prebentzioan, gatazka-egoeretan eta gatazka ondorengo egoeretan, 2013ko azaroaren 13a, CEDAW/C/GC/30.

<https://www.refworld.org/es/publisher,CEDAW,,,52d9026f4,0.html>

CEDAW (2008). Emakumearen Kontrako Edonolako Bereizkeria Deuseztatzeko Komitea. 41. sesioa. Azken oharrak, 2009ko urriaren 13a, CEDAW/C/UK/CO/6.

CEDAW (2013). Emakumearen Kontrako Edonolako Bereizkeria Deuseztatzeko Komitea. 55. sesioa. Azken oharrak, 2013ko uztailaren 30a, CEDAW/C/GBR/CO/7.

CEDAW (2019). Emakumearen Kontrako Edonolako Bereizkeria Deuseztatzeko Komitea. 72. sesioa. Azken oharrak, 2019ko martxoaren 14a, CEDAW/C/GBR/CO/8.

Erresuma Batuko Akzio Plan Nazionala (APN), 2006. https://www.peacewomen.org/sites/default/files/united_kingdom_nationalactionplan_march2006.pdf

Erresuma Batuko APN, 2012. https://www.peacewomen.org/sites/default/files/united_kingdom_nationalactionplan_feb2012revised.pdf

Erresuma Batuko APN, 2014. [https://www.peacewomen.org/sites/default/files/UK%20Revised%20NAP%20\(2014-2017\).pdf](https://www.peacewomen.org/sites/default/files/UK%20Revised%20NAP%20(2014-2017).pdf)

Erresuma Batuko APN, 2018. <https://www.peacewomen.org/sites/default/files/National-Action-Plan-Women-Peace-Security-2018-2022.pdf>

Irlandar Errepublikako APN, 2011. https://www.peacewomen.org/sites/default/files/ire_nap_nov2011.pdf

Irlandar Errepublikako APN, 2015. [https://www.peacewomen.org/sites/default/files/Revised%20NAP%20Ireland%20\(2015-2018\).pdf](https://www.peacewomen.org/sites/default/files/Revised%20NAP%20Ireland%20(2015-2018).pdf)

Irlandar Errepublikako APN, 2019. <https://www.peacewomen.org/sites/default/files/Ireland%20NAP%202019.pdf>

